

FAQ's

Zer da kreditu-txartel bat?

Ordaintzeko tresna bat izateaz gain, kreditu-txartel bat krediturako erraztasun bat ere bada (zure eskura jartzen dugun finantzaketa, gehien bat erosketak egitean ordaintzeko erabiltzen dena). Kreditu-txartelarekin ordaintzean, ez duzu ordainduko kontuak unean duen saldoarekin, txartelak duen kredituarekin baizik (emandako kreditu-mugaraino, kontratuaren arabera). Kreditua adostutako likidazio-aldiaren amaieran itzuliko da.

Zein da zordunketa- eta kreditu-txartelen arteko desberdintasuna?

Zordunketa- eta kreditu-txartela **ordainketa moduan desberdintzen dira:**

- **Zordunketa-txartelarekin ordaintzea:** erosketa bat txartelari elkartutako bankuko kontuaren saldoarekin ordaintzen da; ondorioz, ez baduzu adina saldorik erosketa egitean, ezin izango duzu ordaindu harekin.
- **Kreditu-txartelarekin ordaintzea:** erosketak ez dira ordainduko kontuak unean duen saldoarekin, txartelak duen kredituarekin baizik (emandako kreditu-mugaraino). Kreditua adostutako likidazio-aldiaren amaieran itzuliko da. Gainera, kreditu-txartelarekin ordaintzen baduzu, aukera duzu kredituaren guztizkoa noiz ordaindu nahi duzun aukeratzeko: likidazio-aldiaren amaieran, interesik gabe, edo modu geroratuan, interesekin.

Kreditu-txartelarekin ordaintzen baduzu, interesak ordainduko dituzu?

Ez beti. Kreditu-txartelerako aukeratutako ordainketa-modalitatearen arabera izango da:

- **Ordainketa hilabete amaieran egiteko modalitatea aukeratzen baduzu**, ez duzu ordainduko interesik, erabilitako kredituaren guztizkoa itzuliko duzula adostutako likidazio-aldia amaitzean.
- **Ordainketa geroratu aukeratzen baduzu**, ordea, elkartutako interesak ordainduko dituzu; izan ere, ordainketak malguagoak izango dira, erabilitako kreditua aukeratzen duzun zenbatekoko hileko kuotetan ordainduko duzu eta, hilabetean izandakoaren ordez.

Txartelaren ordainketa-modalitatea edozein unetan alda dezaket?

Bai, nahi duzunean alda dezakezu, txartelak eskaintzen dituen ordainketa-modalitateen artean. Horretarako, berriaz eskatu behar diguzu, zenbait ordainketa-modalitatek elkartutako interesak ordaintze dakarte eta (informazio gehiago duzu harpidetutako txartelaren kontratuan eta kontratu aurreko informazioan; hots, INEan).

Zer da revolving kreditu-txartel bat?

Revolving kreditu-txartel edo ordainketa geroratuko txartelarekin, erabilitako kreditua ez da itzultzen adostutako likidazio-aldiaren amaieran; aldiz, kreditua epeka itzultzen da, modu geroratuan, eta interesekin (zehaztuta agertzen da kontratuan nahiz kontratu aurreko informazioan; hots, INEan).

Gainera, kreditua birakaria da; hau da, murriztu egiten da txartelarekin kreditu moduan ordaintzen duzunean. Edonola ere, kreditua ordaindu ahala, berreskuratu egiten da, eta berriro erabil dezakezu.

Ordainketa geroratuko kreditua itzuliko duzu aukeratzen duzun hileko kuotaren arabera, baita ordaindu ahala erabiltzen duzun kredituaren arabera ere. Zenbat eta hileko kuota handiago, orduan eta lehenago ordainduko duzu erabilitako kreditua. Ondorioz, kredituaren kostua txikiagoa izango da, interes gutxiago ordainduko dituzulako eta kuotaren zenbateko gehiena kapitala amortizatzen zuzenduko da.

Gure txartel guztietan pertsonaliza daiteke kredituaren ordainketa, zure finantza-beharren arabera; ondorioz, edozein kreditu-txartel revolving txartel bihur daiteke, Ordainketa geroratua modalitatea aukeratuta.

Nola kontrata dezaket txartela eta zer eskubide ditut?

Zure eskura jartzen dugu (kontratazio-fluxuan agertuko da eta posta elektronikoko bidez bidaliko dizugu) Europako Informazio Normalizatua (INE); hots, aukeratutako kreditu-txartelaren kontratuari buruzko kontratu aurreko informazioa. Garrantzitsua da arretaz irakurtzea eta, nahi izanez gero, merkatuko beste eskaintza batzuekin alderatzea. Bertan, baldintza ekonomikoak eta txartelaren kontratuari buruzko informazioa azalduko dizugu (atzeratze egiteko eskubidea, ordainketa-modalitateak, esleitutako kreditu-muga etab.). Hartu zure denbora.

Eskaintako baldintzak mantenduko ditugu 30 egunez, kontratua sina dezazun behin ondo pentsatu eta erabaki ostean, produktua zure beharretara egokitzen bada.

Hori dela eta, txartela kontratatu aurretik, hauetarako eskubidea duzu:

- Modu egokian kontratatu behar duzun produktuari buruzko informazio nahikoa jasotzea.
- Kontratu aurreko informazioa jasotzea (INEa, kreditu-txartelaren kasuan) sinatu aurretik, iraungarria den formatu batean.
- Hartu behar duzun denbora pentsatzeko eta txartela kontratatu nahi duzun edo ez erabakitzeko, behin aplikagarriak diren baldintza ekonomikoak ezagututa (INEan zehazten dira).

Kreditu-txartelarekin egindako eragiketak kontsulta ditzaket?

Bai, telefono mugikorrean dagokion aplikazioa deskargatu baduzu, edo "PARTIKULARREN GUNE PRIBATUA" atalean sartzen bazara www.caixabankpc.com webgunean edozein unetan, baita Bezeroen arreta-zerbitzura deitzen baduzu ere 900 101 601 telefonora (astelehenetik larunbatera, 09:00etatik 21:00etara). Zure eragiketen xehetasuna ezagutuko duzu, eta erabilgarri duzun emandako kreditu-muga kontsultatu, baita kreditu-txartelarekin lotutako beste edozein informazio ere. Gainera, txartel bat baino gehiago baduzu kontratu berean, txartel bakoitzaren mugimenduak ikus dezakezu, modu bereizi eta xehatuan.

Bestetik, hileko aldizkako informazioa (laburpena) bidaliko dizugu, kreditu-txartelekin egindako mugimendu eta ordainketen xehetasunarekin.

Horrez gain, doan eska diezagukezu amortizazio-taula bat, geroratutako eragiketa edo saldoaren zenbateko, aldi eta ordainketa-baldintzak xehatuta.

Behin kontratua sinatuta, atzera egin dezaket? Edozein unetan utz dezaket bertan behera?

Bai, atzera egiteko eskubidea duzu; hau da, gure kreditu-txarteletako baten kontratuari uko egin eta baliogabetzeko eskubidea, sinatu ondorengo lehenengo hamalau (14) egun naturaletan. Ez da beharrezkoa arrazoirik ematea kontratuari uko egiteko.

Lehen 14 egun horiek igarotzean, kontratua edozein unetan utz dezakezu bertan behera, zure aldetik, arrazoirik eman gabe, zor duzun zenbatekoa aldeztatik ordainduta. Eskatzean, zorrik ez balego, guk geuk utziko dugu bertan behera 24 orduren buruan.

Idatziz jakinaraz dezakezu kontratua bertan behera utzi edo atzera egiteko, euskarri elektronikoa iraukorrean hola@caixabankpc.com helbidearen bidez, edo paperean, hala erabakiz gero, Gran Vía Corts Catalanes 159-163, (08014) Barcelona helbidera, edo jaso dela eta edukia duela ziurtatzea ahalbidetzen duen eskubidez onartutako beste baliabide baten bidez.

Non kontsultatu dezaket sinatzen dudana kontratua? Kopia bat emango didazue?

Kontratuaren kopia bat jasoko duzu, noski. Kontratuaren kopia sinatua bidaliko dizugu harpidetza egitean edota posta elektronikoa bidez.

Nola jarriko gara zurekin harremanetan, adibidez, zure txartelaren baldintzen aldaketaren berri emateko?

Zurekin harremanetan egon nahi dugu beti, bizkor komunikatu ahal izateko. Hori dela eta, kontratuan adostuko da gure arteko komunikabidea online izango dela: komunikazio operatiboak bidaliko dizkizugu (adibidez, baldintzen aldaketak, segurtasunekoak edo aldizkako komunikazioak, hala nola hileko laburpenak) posta elektronikoz bidez batez ere. Horrez gain, zenbait komunikazio SMS edota PUSH jakinarazpenen bidez bidaliko dizkizugu, informazio hori ahalik eta azkarren jasotzea beharrezkoa denean (esaterako, iruzur-alertak edo txartelaren blokeoa jakinarazteko).

Komunikazioak paperean bidaltzea nahiago baduzu, berariaz eska dezakezu; edonola ere, jakin ezazu 0,60 € kobratuko dizugula bidalketa bakoitzeko.